

# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria, 259. zenbakia, 2017ko iraila



**NIRVANA**

**CRAFT**



VICHYCOMMUNAUTÉ

**Leire Montoya,  
burdinezko atleta**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Familiaren Osasuna**  
**Zure familiaren ahoaren osasunaz**  
**arduratzen garelako**  
**Gutuz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**en: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

**Ugaro**  
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 174344 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusibok:



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa Elkarte  
Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIO  
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Leire Montoya.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Valentín Mugarza eta  
Markos Gimeno.

**ARGAZKIAK:**

Luken Aranburu,  
Kezka Dantza Taldea,  
Kaltxango AEK,  
Estibalitz González,  
Bizkaiko Suhiltzaileak,  
Artarrai,  
Valentín Mugarza,  
Markos Gimeno,  
Leire Montoya,  
Oneñ  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitz Antxia, Amaia  
Arrondo eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Txoritxo pintxano (Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

- Txoritxo pintxano alegria,
- Gabeko hamabi santuetan!
- nun dozu bartko damia?
- Ze eitxen euan ordu horretan?
- Zezenak hartu dau adarretan!
- Zeruko izarrak kontetan!
- Ze ordutan ta ze modutan?



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Ana Torrens (Dubai)	KIROLZALE .....17 Leire Montoya, atleta
ELKARRIZKETA .....5-7 Luken Aranburu, dantzaria	ERMUAN ZER? .....18 XIV. Mendiko Kultur-Kirol Jardunaldiak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Valentín eta Rosa Generabarrena	IRITZIA .....19 Umorez hartzea
ERMUAN ZER? .....10 Oneñ	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SAN MARTIN AZOKA 12-13 San Martin Azokaren prestaketa martxan	ZORION-AGURRAK.....21 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....14-16 Berbalagunen ikasturte hasiera	URRIKO AGENDA.....22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

## Ana Torrens

1999an Boliviara joan zenetik atzerrian bizi izan da Ana Torrens. Hainbat herrialde eta kontinentetan bizi izan da, eta orain Dubain finkatu du bizilekua senar eta seme-alabekin. 2013an iritsi zen Arabiar Emirerri Batura eta oso gustura dago bertan. Bokazio internazionalistako ermuarrarentzat luxua da Dubain bizitzea, munduaren ikuspegi globala ematen diolako.

### -Noiz irten zinen Ermutik? Zergatik?

1999an irten nintzen behin betiko (behin betiko diot, aurretik Guatemala eta Bolivian bizi izan nintzelako, baina ikasketak amaitzera bueltatu nintzen), Eusko Jaurlaritzak Unicefek La Pazen (Bolivia) duen bulegoan bi urte pasatzeko beka eman zidanean. Nazioarteko Kooperazioa eta Garapena izeneko masterra bukatu berri nuen eta sasoi hartan ez zegoen jende asko titulazio honekin. Beraz, zortea izan nuela pentsatzen dut. Bolivia eta gero, hainbat herrialde eta kontinentetan bizi izan naiz, eta 2013an heldu nintzen Dubaira nire familiarekin.

**-Erabaki erraza izan zen?**  
Hasierako erabaki erraza izan zen, mundua jateko irrikaz negoen eta aukeratu nituen ikasketak egitea erabaki nuen, onartzen duzu familia

eta lagunengandik biziko ez zarelako eta bizitza alderrai izango duzula. Dubaira etortzeko erabakia, hala ere, ez zen erraza izan. 2 urteko semea eta alaba jaioberria geneukan, beraz, toki batean finkatzea pentsatu genuen eta Dubai aukera egokiena zela iruditu zitzaigun.

### -Zerk harritu zintuen gehien?

Denak modu onean harritu ninduen. Bizi izan naizen herrialde eta hiri guztien artean finkatze-prozesu errazena hemen izan dut. Burokrazia, hiria ezagutzea, jendea ezagutzea, aske mugitzea... dena azkarra eta eroso izan zen. Klima latza izango zela pentsatzen nuen, baina zoragarria da. Lehen urtean igerileku eta hondartzak erabiltzen dituzu egunero, baina gero egokitu egiten zara, eta orain neguan ez ditut jaka eta praka luzeak kentzen. Uda gogorra da, hezetasun



handia dagoelako, baina guk bi hilabete libre ditugu sasoi horretan eta, atzeritar askok egiten duten moduan, hiria utzi eta Europan pasatzen dugu uda. Urtean zehar daukagun klimak aukera ematen du umeek lehen bezalako bizitza izatea, kalean (parkean, hondartzan, jardinetan). Ezagutzen dudako hiri kosmopolitena da Dubai. Nire ikastetxean 67 herrialdeko 630 ikasle daude, paradisua da bokazio internazionalista duen edonorentzat eta luxua da munduaren ikuspegi globala edukitzeko. Dubaiko biztanleriaren %10 da bakarrik emiratia, beraz, herrialde arabiarren bizi arren, hori ez da gailentzen den kultura. Horrela, hondartzara joanez gero jendea bikiniarekin, sariarekin, abayarekin eta burkiniarekin ikus daiteke, eta inor ez da ofenditua sentitzen.

### -Nolako da zure egunerokoa bertan?

Normala. Lanaren, familiaren eta lagunengandik inguruan zentratzen da. Dubain birziklatu egin naiz eta gaztelaniako irakaslea naiz ASDn (American School of Dubai). Arratsaldetan umeekin egoten naiz igerileku, hondartzara edo eskolaz kanpoko ekintzetan. Asteburuetan, berriz, basamortura kanpingera joan edo bizikletan irtetea gustatzen zaigu. *Stand up* taulekin hondartzara ere joaten gara. Dubaiko juerga izugarria da, baina ez dut asko dastatu, hori gaztetxoei uzten diet!

### -Noiz izan zara Ermuan azkenekoz?

Urtean behin bueltatzen naiz. Lehen Gabonetan joaten nintzen, baina orain udan joaten naiz. Beraz, Santixauetan beti nago han.

Ekhi Velar

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Luken Aranburu, dantzaria:

**“Telmo Esnalek beti zerbait berezia bilatzen zuen eszena bakoitzean”**

Telmo Esnal zinemagilea “euskal folklorea merezi duen tokian jartzea” lortuko duen pelikula grabatzen ari da. ‘Dantza’ titulua izango du zarautzarraren film berriak eta hainbat aurpegi ezagun ikusiko ditugu bertan. Izan ere, Unai Txurruka, Eider Gisasola eta Luken Aranburu mallabitarrak kameraren aurrean izan dira. Aste Santuan eta udan aritu zen lanean hirukotea kameraren aurrean, eta orain arte grabatu eta muntatutakoa Donostiako Zinemaldian proiektatuko da, Glocal in Progress sailean aurkeztuko dute. Esperientzia polita izan dela aitortu digu Aranburuk.

- *Noiz hasi zinen dantzan? Eta non?*

2006an hasi nintzen Mallabian antolatu zen dantza ikastaro batean. Gustatu eta urte horretan bertan, irailean, Eibarko Kezka Dantza Taldean hasi nintzen dantzan. Gero, bi urtez, Biraka dantza taldean ere aritu nintzen dantza klasikoa ikasten.

- *Hasieratik gaur egunera arte Kezka Dantza Taldean aritu zara?*

Bai. Kezka Dantza Taldeetik Argia Dantza Taldean sartzeko aukera izan nuen, eta 2008ko otsailan estreinatu zen Axeri Boda ikuskizunean parte hartu nuen, Juan Antonio Urbeltzen gidaritzapean. Argia dantza taldearen azken ikuskizunetan ere parte hartu dut (Axuri Beltza, Aunitz Urtez eta Besta Berri). Datorren azaroaren 11an estreinatuko da Bil-

boko Arriaga antzokian Juan Antonio Urbeltzek Artedrama Arte Eszenikoen Plataformarekin batera aurkeztuko duen ikuskizun berria, Martin Zalakain, eta bertan izango naiz Kezka Dantza Taldeko beste hainbat dantzariarekin batera. Bestalde, 2013an Txindurri Dantza Taldean dantzak irakasten ibili nintzen eta emanaldi batzuetan ere parte hartu nuen beraiekin.

- *Zure ogibidea da edo beste zerbaiten egiten duzu lan?*

Ingeniaria naiz ogibidez eta CMZ enpresan egiten dut lan, Goitondo industrialdean duen Tornuen muntaia lantegian. Dantza denbora-pasa da niretzat.

- *Nolatan sartu zinen dantzari lanetan 'Dantza' pelikulan?*

Telmo Esnal zuzendaria

## “Dantza denbora-pasa da niretzat”

bera ere dantzaria izandakoa da, eta bere garaian Argia Dantza Taldean aritutakoa. Hori dela eta, euskal dantzari buruzko film bat grabatzea bururatu zitzaionean Argia dantza taldeko dantzariengana jo zuen. Hala, Argia Dantza Taldean parte hartzen dugun talde ezberdinak ere proiektuan sartu gara. Unai Txurruka Mallabitarrak eta Txindurri Dantza Taldeko Eider Gisasolak ere hartu dute parte nirekin batera. 2014. urtean hasi ziren pelikularen kontuarekin, pelikula grabatzeko finantzazioa lortzeko trai-

ler bat grabatuz Igartubeiti baserrian. Orduan kanpoan nongoen ikasten eta ezin izan nuen grabaketan parte hartu. 2016 urte amaierarako finantzazioa lortu zuten eta pelikula 2017an zehar grabatu da.

- *Nolakoa izan da Telmo Esnalekin filma grabatzeko esperientzia?*

Esperientzia benetan polita, ezberdina. Pelikula baten grabaketa nolakoa den ikusteko aukera izan dugu. Azken batean, emanaldiak ondo irten daitezten prestatzera ohituta gaude dantzariok, baina kasu honetan behin eta



HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012 ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELKETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEMU 3-945170563  
 ERMUA

**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

## “Horrelako pelikula batean parte hartzeko aukera izatea benetan berezia izan da”

berriz errepikatzen genuen dantza berbera, perspektiba ezberdinak grabatzeko, kamera ezberdinekin, argia ere kontuan hartuta, etab. Azkenean, pelikula baten atzean dagoen lan guztia ikusteko aukera izan dugu. Gainera, Telmok beti zer bait berezia bilatzen zuen eszena bakoitzean, bera dantzaria izanik, dantzak transmititzen diona bilatu nahi zuelako. Hori lortzeak emozio-

natzen zuen gehien.

- *Errepikatzeke modukoa?*

Bai, esperientzia polita izan da. Dantza gustuko izanik gainera, horrelako pelikula batean parte hartzeko aukera izatea benetan berezia izan da.

- *Non ibili zarete grabatzen? Kontatu pixka bat grabaketa egiteko orduan non eta nola ibili zareten.*

Aste santuan Belchiten (Zaragozan) izan ginen



‘Dantza’ pelikularen eszena bat.

grabatzen, planetarioan. Lau eguneko grabazioa izan zen. Egun osoa eszena preparatzen pasatzen genuen, gero grabaketa ordu jakin batera mugatuta baitzegoen, eta momentu hori oso bizia izaten zen, dena ondo irteke denbora justua genuelako. Bestetik, uda aurretik Leitzañan izan ginen bi asteburutan. Bertan, pelikulako eszena jendetsuena grabatu zen, adin ezberdinetako 200 pertsona inguru dantzan. Hemen zailena izan zen hainbeste jende koordinatzea, eta produkzioek benetan lan handia egin zuten: jantziak egiten, ilea apaintzen, makilatzen, etab. Abuztu bukaeran berriz, Bardeen izan ginen, baina honez gain, Arantzazun, Hondarribian eta Euskal Herriko beste hainbat he-

rritan ere grabaketak egin dituzte pelikularako. Aipatzekoa da, era berean, pelikula grabatu ahal izateko dantzari asko lortu eta koordinatu behar izan dituztela. Kontuan izanda ez garelako dantzari profesionalak, jai egun eta oporraldiak aprobetxatu behar izan dira grabaketak egiteko.

- *Noiz estreinatuko da? Arrakasta izango duela espero duzue?*

Ez dakit, oraindik azkeneko eszenak grabatzea falta da, baina orain arte grabatu eta muntatutakoa Donostiako Zinemaldiko Glocal in Progress sailean aurkeztuko dute, produktore eta festibalen munduan dabilzantzat. Espero dute datorren urterako grabaketak amaitzea eta datozen jaialdietan aurkezte.

Amaitzen Arginzoniz



Kezka Dantza Taldeko dantzariak.

Zure **publizitatea:**

**DROGETEN** ITTURRI  
**DROGETEN** ITTURRI  
**DROGETEN** ITTURRI

aldizkarian

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

Hamburguesería  
**TITANIC**



*Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**30€** ZONA/SESION

**Y**  
POR  
**35€**

**HAZTE SOCIO DEL  
CLUB NO+VELLO  
Y DESPÍDETE DEL PELO**

**EN 3 ZONAS.**

**ERMUA. Zubiaurre 14.  
943 844704**

club  
**no+vello**  
www.clubnomasvello.com



# Sustraxiei begire

**Valentin eta Rosa Gerenabarrena, Geria-Amesti baserriko neba-arreba erlijiosuek die, Pasiotar prailie bata eta Mertzedetako monjie bestie. Perun bizi die eta Andra Mari jai inguruen bisittan etorritte, eurokin egoteko aprobetxau gendun. Gazterik alde eben, baiña umetako akorduek irribarretxue etaratzen dotsie. Geriako elizpien alkartu giñen, euren bokaziño eta fedian jatorri zein olgeta-leku izendako txokotxo estimauen.**

- **Eskolara bertora?**

**Rosa:** Bai, hortxe goixen zan eskolie, oin soziedadie dana eta neska eta mutil, danak batute egoten giñen. Nik errekuerto txarra deuket eskoliana: hasi nintzenien ez genkigun erderaik, maistrie zorrotza, gauza asko aittu bez, etxien esplikaziño haundirik emon bez... Gogorra ein jatan!

**Valentin:** Hori gerra ostien asko emon zan. Ez zeuen euskeraz eitten eban erakustaillerik. Maixutzan hasi barri zienak honako auzunetara bialtzen zittuezen, urtebete ein bertan eta alde! Orduko denporetan kamiñorik bez, dana kakatzie eta bide eskasa, eta euren tzat be ez zan dana erretza izengo.

- **Eskolie amaitutakuen, arin baten etxera juen biher edo baekazuen olgetako aukeraik?**

**R:** Hau elizpiauh lehen frontoi modu bat zan eta pelotan jo ta ke eitten gendun, neska zein mutil. Nik be pe-

lotan beti ekitten nutsen gogor. Etxera eskuek haundittute juten nintzen batzutan. Ez, neskok ez gintzezen atzien geratzen, ez!

**V:** Urteteran, olgetarako bittartetxo bat izaten zan. Hori bai, etxera be jun biherra geunken, zeozetan laguntzeko. Biher haundixek ez zien izengo, baiña zeozer: astue eruen, eskobariaz bedarra batu, ganau zaiñen eiñ... Eskolako laborrak gero, gabien eitten genduzen. Argixe geunken batzutan, eskas txamarra, eta ez be beste askotan; Muniuzgurenetik etorten zan gurera inddarra, dinamo txiki bat eken-eta, baiña sarriten moteltxue zan. Holakuetan laboriok argizariaz edo beheko suan argittasunaz ein bihar izeten genduzen.

- **Okerkerixarik-eta ein dozuez, edo beti formalak izan zarie?**

**V:** Buenoooo, amaittu bakuek! Bidien keixa-arbolak egoten zien eta etxerutzien haretzek jatie izeten zan...



Valentin eta Rosa Geriako San Adrian eleiz parien, urtetxo batzuk dakazen bixon erretratua eusten.

lñoña beti norberana baiño gozuaue izeten da ba! Sagasti ondolik pasaueran, sagar batzuk hartu, jan moduko bat ein eta bota be bardin. Urren sasoi en be iñoñak. Iguel txakurrek sentitzen giñuezen, zaunkez hasi, soltatzen zoskuen eta ariñeketan ein biher... Gero harrike be igual alkarri, batzuk goittik eta bestiek behetik... Eneee! Umien parte, bizi moduan parte da olgatzie eta oker batzuk eittie!

**R:** Ni akordeten naz zelan guk ortue zaindu biher izaten gendun eta oillue beran txitxekin haraxe ortue etorten jakule. Zeozer eittiarren guk harritxuek botatzen geuntsezan hari oilluari eta egun baten, tak! txitxa bat hil ein zan. Enterrau eta desaporezidu erain gendun. Gure amai baiña ez jakon ezer pasetan eta gabien errepassau eban: "la, nor izen da?". Danok ixilik eta pla! pla! pla!... bana! Egirik ez etaratzetan, danoi emon

zoskun errepartue eta berotute ohera!

- **Zuena moduko famelixetan, 10 anai-arrebako aldretan, seme edo alabaren bat erlijijñoruntz bideratzie sarri emoten zan. Zuen kasuen?**

**V:** Nik neu neure erabakiz jun nintzen. Gazterik, 11 urtekin sartu nintzen seminariuen. Hamendik auzunatik 3 lagun jun gintzezan; beste bixek etorri ein ziren barriro eta nik aurrera jarraitu neban. Eta oin arte!

**R:** Ba nik hamen eskolie amaittu nebanien, amak esan eban: "Zeozertxo gehixao be bihar dozu bizitzan aurrera eitteko" eta Berrizera eruen niñuten, monjetara, externaure. Gurasuek argi eken preparaziñue biher gendula eta 4 ahiztak bertan ikasittakuek gara.

- **Erabaki erretza izaten da bizitza osorako hartutako hori edo norbera ez da konturatzen betirako danik?**

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefonoa: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com





Gerrenabarrena Longarte 10 anai-arrebak, atzien euren Geria-Amesti jaiotetxie ikusten dala.

V: Bai, baina txandakaxandaka barriro indartu bihar izaten da, sustrai barrixe edo zeoze ipiñi biher dotsezu, bestela... Hartutako konpromisue, eindako botuek urtero barrizatzen doguz Kongregaziñuen; aste beteko Gogartiek, Ejerzixuek ein eta amaittueran botuek barrizatzen doguz.

- **Krisialdixek be egongo die, ezta?**

R: Bai, eukitzen dozuz, zelan ez, baina danaren gaiñetik zeuk ein dozun opziñue egoten da aurrien. Nik uste dot barriro jaixoko banitza-

teke, seguruao hoixe bidioi hartuko neukela; fedian gaiñien txikitten jaso nebazen sinesmenak, sustrai einde, beti lagun izan dittut. Erlijiñõ bide hau nitzako pertsona lez oso aberasgarrixe izen da; inguruen euki doten lagunengandik asko jaso dot eta emon be halantxek emon dot.

V: Bai, bizitzan ziber egoten die nekiek, asperraldixek eta okerrak eta aurre eitten jakue, edozein pertsonak eitten dotsen modure.

- **Perura juan zinetenien, zerk harrittu ziñuezen?**

V: Hamen formaziñue konbentura begirakue emoten zoskuela, bizitza konbentuala eitteko eta Perun kanporako eitten zala bihera: bateko doktriñie emon, besteko enterrue, jun batera, jun bestera, jente artien beti... geratu bakue! Etxien zer gitxi euen: jagi, errezuek eiñ, goxien edo illuntzien mezie emon... baiña ez hamengo moduen, hain diziplina zerrauen. Gero oihanera, selbara bialdu niñuen, erreka onduen bizi dan jendiaz bihera eittera eta han beste bizimodu bat topau neban.

R: Ba jendiaren pobretasune, zelan bizi diran hain gauza gitxi-gitxiaz eta daken apurre emoteko dake-la, ze bixotzez emoten dake-xe emon be. Beste modu batera bizi die, ezer euki ez be eta itxaropentsu eta zorionsu bizi die. Guk hamen bixerakue lotute euki biher izeten dogu; han pentsatzen dabe: "Bixer etorriko da bixer biher dotena!" eta horren esperuen, bixer ezpada etzi etorriko dan fediaz, pozik bizi die. Sarritten liburu askok baiño gehixao erakusten doskue!

- **Hamen badago ezer hara erungo zenduekenik?**

V: Teknika-edo, bihera errezteko gauzak edo hola-kon bat.

R: Hamen pertsona kreatibo asko egon die, gizartiar gauza asko aportau dotsienak; han Estaduek ez dauz promozionatzen eta bultzatzen jendiaren kreatibidadie eta bertakuen ideiak. Hori erungo neuke: bertan dauen aberastasune eurentzako onugarri eitteko ezaguperie, bihera emon eta aurrerapidie eitteko.

*Hala bedi, bikote!*

Estibalitz González  
Valentín Mugarza



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Toldoak</li> <li>- Ostalaritzarako muntaiak</li> <li>- Pertsianak</li> <li>- Instalakuntzak eta konponketak</li> <li>- Motorizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Manparak</li> <li>- Segurtasun pertsianak</li> <li>- Pertsiana dekoratiboak</li> <li>- Estoreak</li> <li>- Eltxo-sareak</li> </ul>
---	---

<p>Tallerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)</p>	<p>Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com</p>
--	--





**SEHIGA**  
PROTECCION LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak



Denda  
berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**ZUZENBIDE  
KONTUAK**  
Lege eta  
kontu aholkularitza

---

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com



CAPRI

PIZZERIA

943 03 33 15

# Baserritik ahora eta Oneiñ!

Gastronomia eta landa garapenaren mundua gustuko dute Xabier Narbaiza eta Eneritz Arizmendarretak. "Uste dugu elikagaien kontsumo jasagarria edukitzea oso garrantzitsua dela", azpimarratzen dute. Hortik abiatuz eta hainbat gauza probatu ostean, Oneiñ proiektua jarriko dute martxan urrian Ermua eta Eibarren, nekazari eta bezeroak zuzenean lotzen dituen kontsumo taldea.

“Ondo jan, bertako produktuak kontsumitu eta sukaldatu nahi ditu jendeak”, eta horregatik sortu dute Oneiñ Narbaiza eta Arizmendarretak. Gaur egungo jendearen bizitzara egokitzen den kontsumo taldea da, nekazariak eta bezeroak zuzenean lotuko dituen, eta Hapiiick enpresarekin elkarlanean jarriko dute martxan urria proba pilotua.

Hapiiickek takila adimenduak ditu Euskal Herriko, Errioxa eta Burgoseko hainbat puntutan, eta bertan interneten egindako erosketak jaso daitezke. “Euren sistemaren bitartez egingo dugu banaketa”, adierazi digute. “24 ordutan egongo da produktua jasotzeko aukera”, eta produktu freskoak izango direnez, hozkailuan egongo dira, “produktuak ondo mantentzeko”. Sistemaz gain, Hapiiickek asko lagundu die proiektua garatzeko orduan, “mentore lanetan” ibili

direla aitortzen dute.

Ermuan Izarra Centerren dauka takila Hapiiickek (eta baita egoitza ere), eta Eibarren Kantoi gasolindegian eta Kalbetoi kaleko ‘vendingean’. Han jaso ahal izango dira Oneiñen produktuak, eta enpresaren arduradunek diote Eibar eta Ermua toki onak direla, “inpaktua duten tokiak direlako eta biztanleria dezente dagoelako”. Urrian jarriko dute dena martxan eta hileroko bezeroen asebetetzea nolakoa den aztertuko dute, horren arabera moldatzeko.

## Bezeroel egokitutako menuak

Menuak osatzerako orduan hainbat profil diseinatu dituzte: kirolariak, familiak, beganoak... Talde horien ezaugarriak kontuan hartuta, produktu bat edo beste sartuko da saskian. Gainera, Ane Campos nutrizionistarekin arituko dira elkarlanean, eta horrek plan dietetikoa diseina-



tuko die bezeroei. “Horrekin batera errezeta liburua emango diegu, planean agertzen diren bazkariak prestatzeko. Bezeroei dena erraztea da asmoa”.

Barazkiak, arraina, okela, esnekiak, arrautzak, arroza, pasta... denetariko produktuak eskainiko ditu Oneiñek. “Helburua da gosari, bazkari eta afarirako beharrezkoa den guztia edukitzea astean zehar”. Horretarako, Debabarrenako nekazarien produktuak eskainiko dituzte batik bat, izan ere, ahalik eta produktu gehien “gertukoak izaten” saiatu direlako. Slow Food mugimenduari jarraitzen dio Oneiñek eta haien esanetan, “Kilometro 0 izatea da helburua, baina garrantzitsua da baita ere produktuak garaiari garaikoak izatea”.

Saskiak prestatu baino aste-bete lehenago nekazariarekin kontaktuan jarriko dira Narbaiza eta Arizmendarrieta, hurrengo asterako zer edukiko

duten jakiteko. Nekazariak daukatenaren arabera zerrenda eta banaketa egingo dute. “Horrek nekazariari mesede egingo diela uste dugu, ez direlako eskaeraren menpe egongo”.

Oneiñ zerbitzua jaso ahal izateko 75 euroko kuota ordaindu beharko da astean, “berdin dio zein profiletan ematen den izena, kopurua bera izango da”. Proiektuari buruz informazioa jaso eta jendeak izena eman ahal izateko informazio-gunea ezartzeko lanetan dabilta, Ermuko Udalarekin berbetan ari dira eta hainbat jardunaldi eta ekintzatan parte hartzea aurreikusten dute arduradunek.

Momentuz, Oneiñi buruz informazioa jaso edo zerbitzuan alta eman nahi izanez gero, oneinfo@gmail.com helbide elektronikora idatzi edota 688 619 640 telefonora deitu daitezke.

Ekhi Velar



## URRETA

**burdindenda**

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Savrilaingintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervillak	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**



## QUETZAL

[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturte, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

## TALAPARTA

ABERNA

**Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

**Erdikokale 13 (Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
**943 030 299**

ileapaindegia

## Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474



688819336

# 17/18

CURSO IKASTURTEA

Matrikula epea ZABALIK  
Plazo de matriculación ABIERTO

ONGI ETORRI  
euskarara

UDAL  
EUSKALTEGIA

euskara klaseak

[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)



## ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

### Matrikula zabalik

MAILAK			KLASEAK
<b>B1</b>	<b>B2</b>	<b>C1</b>	Astean 3 egunetan (2 ordu egunean)
<b>A1</b>	<b>A2</b>		Astean 2 egunetan (2 ordu egunean)

Eskaintza eta ordutegi zabalak / Txandakako taldeak

Azterketa ofizialak maitatzen eta urrian

16 urtetik gorakoentzat

Bekak / Langabetuek eta lehen mailako ikasleek matrikularen  
prezio erdia

### Izena emateko epea irailaren 28ra arte

## BULEGO ORDUTEGIA

9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara

## ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina. Goienkale, z/g 2. solairua

Tf.: 943 17 09 25

[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)

<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>

**28. SAN MARTIN AZOKAN:**

\* Errifak eskatzeko azken eguna, urriaren 24a

**100€**  
(tabernariak)**50€**  
(dendariek)

=



+



688632874

Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernariak 100€ ordaindu (dendariek, 50€) eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

# San Martin Azokaren prestaketa martxan!

**Oso gutxi falta da San Martin Azokaren 28. edizioa ospatzeko, ermuar eta euskalzeleen urteroko zita berezia. Aurten azaroaren 11an ospatuko da, larunbata, goizetik gauera arte herria jai giro euskaldunaz jantziz.**

Urtero moduan eskaintza zabal eta erakargarria egongo da San Martin Azokan. Aurtengo edizioan ere animalien azoka izango da eta artaldearen jaitsiera egingo da Zubiaurre kaletik. Iaz Solsa baserrikoak garia jotzen eta irina egiten aritu zien, eta aurten ere nobedade batzuk egongo direla aurreratu digute antolatzaileek. Urteroko ohiturei jarraituz, herri kirolak izango dira Komentukua kalean, erakusleihen lehiaketa egingo da, babajana Merkatu Plazan, errome-

ria Luhartz taldearekin eta beste hainbat ekintza. Antolatzaileek azpimarratzen dute egun horretan musu-truk lanerako prest zaudeten guztiok (goizeko muntaia, txandak, desmuntaiak...) ongi etorriak izango zaretela. Lagundu eta parte hartu nahi izanez gero, deitu 943179350 edo 688632874 telefonora. Bestetik, Ermuko elkarte eta talde guztiei azaroko San Martin kulturealean edozein ekintza aurrera eramateko gonbidapena luzatzen zaie.

**Nekazari eta ekoizleak**

Azokan parte hartu nahi duten nekazari eta ekoizleek urriaren 2tik eta 11a bitartean eman beharko dute izena Abiapuntu bulegoan (Konbentukoa kalea, 3). Durangaldeko nahiz Lea-Artibaiko eskualdeko herrietako ekoizle zein nekazariak bideratu ahalko dute parte hartzeko eskabidea. Ezti, sagardo eta txakolin lehiaketetan, berriaz, Bizkaiko udalerriz guztietako ekoizleak. Salbuespen moduan, mugakide diren Eibarko ekoizleak ere eskabidea bidera dezakete. Plazak mugatuak dira eta esleipena azaroaren 2an emango da lobianon.

**Artisauak**

Aurreko urteetan egin den bezala, artisauen postuak ipiniko dira eliza aurreko

plazatxoan. Euren produktuak bertan ikusgarri ipini nahi dituztenek ere izena eman beharko dute urriaren 1etik aurrera, 943179350 edo 688632874 telefonora deituta. Plazak mugatuak dira kasu horretan ere.

**Bertso jaialdia**

Aurtengo bertso saioa azaroaren 3an izango da, Ermua Antzokian 22:15ean. Goimailako bertsolariak izango dira Ermuan aurten ere: Uxue Alberdi, Odei Barroso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita eta Ibon Ajuria, eta Josu Goikoe-txea izango da gai-jartzailea. Sarrerak 10 eurotan ipiniko dira salgai, eta aldeaz aurretik erosi ahal izango dira Lobiano Kultur Gunean, Kutxabankeko kutxazainetan eta webgunean, eta 944310310 telefonoan.

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

San Martin Kulturala 2017

# Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, azaroaren 3an, 22.15ean

**Andoni  
Egaña**



**Onintza  
Enbeita**



**Maialen  
Lujanbio**



**Ibon  
Ajuria**



**Uxue  
Alberdi**



**Odei  
Barroso**



**Gai-jartzailea**

**Josu  
Goikoetxea**

**Sarrera: 10€**  
Lobiano Kulturgunean,  
Kutxabankeko kutxazain,  
webgunean eta  
944 310 310  
telefonoan salgai.



**esanline®**



**846 080 010**

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

**esanline.es**

**Komunitateak**

# San Pelayo

**Aholkularitza  
juridikoa**

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**hanigan's  
Irish tavern**

Gosari, bazkari eta afariak  
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

**Komentukua z/g - 943030527**

**SUTEAK MALLABIAN**

Hainbat sute gertatu dira Mallabian azken asteotan. Irailaren 22ko gauean Calvario kalean dagoen Errementarixaneko saloiak (sasoi batean dantzaleku eta taberna izandakoa) sua hartu zuen, eta horren ondorioz beste bi eraikin ere erre ziren, Kultur Etxea besteak beste, baina zorionez ez zen zauriturik izan. Iurreta, Arrate eta Markikanko parke- etako suhiltzaileek sua itzali zuten.

Irailaren 20an, bestetik, Goitondo industria-gunean dagoen Hierros Servando enpresaren pabilioiak sua hartu zuen eta inguruko beste bost fabrika ere kaltetuak izan ziren. Orduan ere ez zen pertsona zauriturik izan.

**Berbalagun 17/18 edizioa laster martxan**

Udako atsedenaldiaren ostean ekiteko prest daude Mallabiko eta Ermuko Berbalagun euskararen praktikaren egitasmoak. Aurreko edizioetan bezala, berrikuntzaz betetako plangintza osatu dute herri bakoitzerako eta jada ezagunak diren BERBAFARIAK, PINTXO-POTEAK, TAILERRAK, GURASOLAGUN IREKIAK, MINTZODROMOAK, IKASTARROAK, FAMILIENTZAKO EKINTZAK edota KIROL jardueraz gain, 'BERBALAGUN TOPAKETA', MENDI-LAGUN, 'MALLABITARROK EGINA' edota 'MERIXENDAK' ekintza berriak dakartzate herri bietako programek.

Ekimen berrien inguruan aurrerago azalpen eta xehetasun gehiago emango dituztela adierazi dute antolatzaileek. Jarduera guztiak interesgarriak, dibertigarriak eta euskara praktikatzeko baliagarriak izango diren ziurtasuna adierazi dute. Bestetik, berbataldeetan inoiz baino partaide gehiago izateko ekintza bideak jarriko dira aurki abian.

**XXIV. Juanita Ibaibarriaga literatur lehiaketa martxan**

Abian da XXIV. Juanita Ibaibarriaga literatur lehiaketa, gazteen artean idazteko zaletasuna piztea, euren hizkuntza aberastea, espresibitatea hobetzea eta irudimena garatzea helburu duen ekimena. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBH-ko 4. mailara arteko ikasleek har dezakete parte bertan, eta bi sari mora banatuko dira. Batetik, Lehen Hezkuntzako maila bakoitzeko irabazleak Ermuko Merkatarri Elkarteako dendetan trukatu ahal izango dituen 40 euro jasoko ditu. Eta bestetik, DBH-ko maila bakoitzeko irabazleak 60 euro eskuratuko ditu baldintza beretan. Gaia librea da eta parte hartzaileek ipuin, narrazio edo erreportaje bat aurkeztu beharko dute. Lanak euskara@udalermua.net helbide elektronikoaren bitartez, Lobiano kulturegunean edo ikastetxean bertan entregatu ahal izango dira. Sariak abenduaren 3an banatuko dira.

**BERRITZE LANAK**  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
**ZUK ERABAKI**

**SPARA**  
rehabilitación + sostenibilidad

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36, 3º - 48260 Ermua - Bizkaia

**Horacio Decoración**  
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraclodecoracion.com

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. enolimp@hotmail.com  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

**Ferreteria**  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN**  
**KOPIAK** ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

## III. Minbiziaren Aurkako Martxa Solidarioa urriaren 22an

Herriko kaleek III. Minbiziaren Aurkako Martxa Solidarioa jasoko dute urriaren 22an minbiziaren inguruko ikerkuntzarako fondokak jasotzeko. Ekitaldiak 11:00etan izango du hasiera Orbe Kardinalaren plazan eta bertan amaituko da. Urriaren 7ra arte zabalik dago lasterketan parte hartu ahal izateko izena emateko epea, Merkatu Plazan, asteazkenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara.

Irailaren 13an hasi zen izena emateko epea eta erantzun ona jaso du ekimenak herritarren artean, 1.500 lagun baino gehiagok eman baitute izena jada. Gainera, 'Zorigaitza' txarangak Santixauetako playback lehiaketan eskuratutako bigarren sariari dagokion diru guztia lasterketaren antolatzeke, Ermuko AECC-ri, eman dio.



## Eskerrik asko Txikurizaleok!

Eli Areitioaurtena, Juanjo Gorritxategi, Maitane Mugerza, Paule Gorritxategi, David Elejalde, Jose González, Idoia Zamakola, Txebis Gorritxategi, Luken Gorritxategi, Estibalitz González, Amagoia Jauregi, Alexandra Fernández. Oier Viteri, Alex Ugena, Maialen Alvarez, Eider Gisasola, Nerea Rubio, Silvia Ganuza, Hiart Redondo, Naroa Beitia, Mirene Moreno, Julen Erauzkin, Amaia Arriaga, Aitor Gartzia, Esteban Goikoetxea, Jon Larrañaga, Beñat Redondo, Endika Goitandia, Unai Rodríguez, Joana Diaz, Asier Cascán, Rodol Ugena, Aritz Barrueta, Eli Txurruka, Ander Díez, Ivan López, Gaizka Goikoetxea, Jokin Aranburu, Danel Gorritxategi, Iñigo Pérez, Axier Alvarez, Mikel Zarrua, Oier Araiztegi, Aintzane Plaza, Jokin Txapartegi, Txomin Espilla, Nagore Espilla, Mikel Yarza, Jon Sarriugarte, Ander Garciandia, Natalia Arrizabalaga, Laura Pascual, Ane Arrizabalaga, Olatz Santos, Malen Eizagirre, Lidia Jiménez, Maria Ormaetxea, Miren Martínez, Alazne Aiestaran, Andoni Esmeralda, Jose Santos, Jabi Vidal, Aitor Arriaga, Juanjo Solozabal, Josu Cruz, Asier Ibaibarriaga, Idoia Narbaiza, Bea Narbaiza, Nerea Berriozabal, Maddi Gorritxategi, Garazi Barinagarrementeria, Elias Uriarte, Begoña Infante, Ines Arano, Aroia Lejardi, Aitzol Lejardi, Iraide Uriarte, Eba Beitia, Osvaldo Guirola, Olatz Gil, Asier Azagirre, Iratxe Uribelarra, Esti Arrizabalaga, Igone Amesti, Libe Masié, Josu Gómez, Aitor Ortega, Jokin Uriarte, Aitor Landarroitajauregi, Amaia Arginzoniz, Alaitz Fernández, Esther Larreategi, Aitor Jauregi, Mario Mateos, Haritz Agirregomezkorta, Nerea Izarra, Alazne López, Libe Solozabal, Ane Izagirre, Amaia Sangroniz, Maialen Agirregomezkorta, Lidia de Luis, Olatz Arriaga, Itziar Unanue, Jose Antonio Unanue, Carmen Solozabal, M<sup>a</sup> Nieves Antxustegi, Alicia Lorenzo, Manuel Moreno, Pamela Janice, Gaizka Areitioaurtena, Gozo-gozo, Izagirre sendia eta Juan Antonio Izagirre. GUREAN MONTATZAILE, TABERNARI, SUKALDARI, GARBITZAILE, TORTILAGILE EDOTA MEZENAS LEGEZ ARITU ZARETEN LAGUN GUZTI-GUZTIOI, MILA ETA MILA ESKER, LAGUNOK!

## TXINDURRI TALDEAK IZENA EMATEKO EPEA IREKI DU

2012 urtean jaiotako umeek izena eman dezakete dagoneko Txindurri Dantza Taldean. Gurasoek WhatsApp bidali beharko dute 658 74 14 98 telefonora urriaren 1a baino lehen, eta bertan umearen izen-abizenak, adina eta telefonoa zehaztu. Ume nagusiagoak ere apuntatu daitezke.

## IMANOL ALVAREZ ESPAINIAKO JUNIOR SELEKZIOAREN HAUTATZAILE

Imanol Alvarez Errotabarri eskubaloitako taldeko entrenatzaileak Espainiako junior selekzioko entrenatzaile kargua hartu du Jorge Dueñas ordezkatzuz. Ermuarrak lehen mailan dabilen Bera Bera entrenatu zuen aurretik eta, Erreginaren Kopa eta Superkopa irabazi ostean, Ermura bueltatu zen etxeko taldea gidatzeko.



## GHOST NUMBER & HIS TIPSY GYPSIES FOLKEZ BLAI LEHIAKETAN IRABAZLE

Donostiako Ghost Number & His Topsy Gypsies izan da Folkez Blai lehiaketako XII. edizioko irabazlea eta sariari dagozkion 3.000 euroak eskuratu zituen finalean Galiziako Obal taldeari gailendu ostean. Epaimahaiaren esanetan maila oso handia azaldu zuten finalera heldu ziren talde biek eta proposamen aukera zabal erakutsi zuten.

27 taldek hartu dute parte aurtengo edizioan, eta saria lortu zuten talde biez gain, finalean aritzeko aukera izan zuten Tik Tara gipuzkoarrek, Innerland valentziarrek, Andres Penabad Band galiziarrek eta Mosaicaires aragoitarrek.

Antolatzaileek oso positibotzat jo dute Folkez Blai lehiaketaren XII. edizioa, eta hasi dira 2018ko irailean egingo den edizioari begira lanean.

## Zientzia protagonista urriaren 6tik 8ra

‘Zientzia akzioan’ programako garatzeko egoitzak izango dira Eibar eta Ermua urriaren 6tik 8ra ospatuko den XVIII. edizioan. Nazioarteko programa da hau eta komunikazio soziala sustatzea, zientziaren irakaskuntza berritzea, eta hori modu errazean gizartera zabaldu eta hedatzea du helburu. Izarra Centrek, San Pelaio plazako kioskoak eta Merkatu Plazak jasoko dituzte egun horietan zehar gauzatu diren ekintza ugariak.

Urriaren 6an, ostirala, zientzia saioen erakustaldia egingo da Izarra Centreko 5., 10. eta 11. solairuetan

eta karpan 16:00etatik 18:30etara. Auditorioan, berriz, zientzia laburmetriak eskainiko dira 18:00etatik 19:00etara; eta eraikineko atrioak ‘Zientzia akzioan’ eta ‘Izar bat adoptatu’ ekimenen aurkezpena egingo da 19:00etatik 20:30etara. Hurrengo egunean, hilaren 10ean, zientzia erakustaldiek jarraituko dute ia egun osoan zehar, 10:00etatik 19:30etara, aurreko eguneko toki berean; eta zientziako laburmetrai gehiago eskainiko dira baita ere 10:00etatik 19:30etara Izarra Centreko auditorioan. Atrioak ‘Agora’ gunea jasoko du 16:00etatik 19:30etara, eta esperimendu dibertigarri eta ikusgarriak ikusteko aukera izango da bertan. Zientzia herrira gehiago hurbiltzeko asmoz, Merkatu Plazak zientzia erakustaldiak jasoko ditu 11:00etatik 19:30etara; eta San Pelaio kioskuan jendaurreko saioak egingo dira 10:00etatik 14:00etara: 11:00-11:30 ‘Probeta sorgina’, 12:00-12:30 ‘Garuna, ideia eta emozio fabrika’, 13:00-13:30 Challenger erronka eta 14:00-14:30 ‘Kontzientziatu: Muskuluak, eratzunak, maitasun istorioa eta jazarpena’. Urriaren 8an Eibarri tokatuko zaio ‘Zientzia akzioan’ programari agur esatea. Enrique Zuazue matematikari ospetsuak ‘Matematikak, pasioa eta lanbidea’ hitzaldia eskainiko du Coliseoan 10:00etatik 11:00etara; eta programaren sani banaketa egingo da ondoren.



## Tasio eta Sabino



- Argi dago, norbaitek errua badu...  
- Nagusiek daukagula.  
- Umeek ez.



Leire Montoya, atleta:

# “Nahi izanez gero, edozer gauza egiteko gai zara”

3,86km igerian, 180km bizikleta gainean eta 42,2 km korrika. Proba bakoitza bakarrik egitea gogorra da berez, bada Ironmanak denak batzen ditu proba berean. Abuztuaren 26an Ironmana egin zen Vichyn (Frantzia) eta bertan izan zen Leire Montoya. 25 urteko ermuarrak 12 ordu eta 42 minutu igerian, korrikan eta bizikletan ibili ostean helmuga gurutzatu zuen, “indarrarekin oraindik”. Hawaiiiko Ironman ospetsua du helburu.

**- Vichy-ko Ironmana egin zenuen abuztuan. Zer moduz joan zen?**

Oso ondo! Askoz gehiago sufrituko nuela pentsatzen nuen, baina dena ondo joan zen eta indarrarekin heldu nintzen helmugara. Azkeneko kilometroak, bizikletan, gogorrak izan ziren, beroarekin ez nintzelako oso ondo sentitzen, baina korrika egitea gehien gustatzen zaidan zatia da eta 42 kilometroak egiten hasi nintzenez jakin nuen Ironmana bukatuko nuela. Azken kilometroak oso politak izan ziren.

**- Zer egin zitzaizun gogorren?**

Beroa. 35 gradu zeuden bizikletan nenbilenean eta tenperatura horrekin oso garrantzitsua da asko jatea eta edatea. Gero maratokia egin behar duzu eta korrika egitera indarrak barik ailegatzen bazara, oso zaila da amaitzea. Nire ustez, Ironmana egitearen zailtasun handiena hilabete askotan entrenatzen duzun bitartean egin be-

harreko sakrifizioa da. Eguneroko esfortzu eta sakrifizioa; goizean goiz entrenatzera joateko jaiki, berdin dio eguraldi oso txarra egiten duen edo ez, lagunekin ezin ateratzea larunbatetan, etab. Jende askok ez ditu horrelako gauzak ulertzen, baina gero hainbeste denbora prestatzen egon zaren hori lortzen duzunean, konturatzen zara gauza garrantzitsuenek denbora eta esfortzu handia behar dutela. Nahi izanez gero, edozer gauza egiteko gai zara.

**- Nola prestatu zinen zita horretarako?**

Nire entrenatzailea Hawaiiin bizi da eta azaroan Ironmana egitea nahi nuela esan nion. Beraz, gogorrago entrenatzen hasi nintzen. Lasterketa hau egin aurretik bi Half egin nituen, baina Madrilen eta bestea Gasteizen. Entrenamenduak laneko ordutegira moldatu behar izan nituen. Gasteizen egiten dut lan, adingabeen zentro batean. Aste batzuetan arratsaldean eta



beste batzuetan goizez lan egiten dut, beraz, entrenamenduak horren arabera egiten nituen. Asteazkenean zehar motzagoak ziren, 10/15 km korrika edo 50/60 km bizikletan eta asteburuetan luzeagoak. Azken bi hilabeteetan 6 ordu bizikletan aritzen nintzen eta 3 ordu korrika egiten.

**- Noiztik zabilta triatloien munduan? Nola hasi zinen?**

2013an Hawaiiira joan nintzen. Gizarte Hezkuntza ikasi nuen Bilbon eta lana bilatu baino lehen ingelesa ikastera joatea pentsatu nuen. Beraz, Hawaiiira joan nintzen familia bateko bi neska zaintzera Au-Pair moduan. Familian triatleta eta igerilari asko zegoen, eta pixkanaka eurekin igeri eta korrika egiten hasi nintzen. Gero, bizikleta oparitu zidaten. Larunbatetan lasterketak zeuden eta 5 kilometroko lasterketak egiten hasi nintzen, gero 10 kilometro,

21 ondoren, maratoki bat ostean eta, azkenean, Hawaiiiko Half-Ironmanean parte hartu genuen.

**- Hawaiiiko Ironmanak ospe handia dauka. Bertan aritzea duzu helburu?**

Bai, han Ironmaneko munduko txapelketa ospatzen da. Sinestezina da dagoen giroa eta lehenengo unetik ikusi nuen pasio askorekin bizi duela jendeak. Bertako familiari esan nion egingo nuela. Badakit zaila izango dela, denbora oso ona egin behar delako, baina espero dut han berriz korrika egitea, munduko txapelketan.

**- Zeintzuk dira hurbilen dituzun erronkak?**

Oraindik ez daukat egutegi osoa erabakita, baina Bartzelonako eta Gasteizko Half-Ironmanak egin nahi ditut, eta gero zenbait triatloi eta korrika lasterketa hemen inguruan.

EKHi Velar

  
**SAGARDUI**  
poltsak  
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**OSASUNA • ESTETIKA**  
EDERTASUNA  
  
*Ile-apändegi bat baino gehiago!!*  
 Egokitutako burua garbitzeko konketa  
943 17 28 09 - Goienkale 12

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika  
  
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

# Mendira herritik irten gabe

Mendiz inguratuta dagoen herria da gurea eta horrek, moduren batean edo bestean, areagotu egiten du mendiarekiko zaletasuna ermuarren artean. Afizio horren poderioz sortu zen Artarra Mendi Taldea eta, urte osoan zehar mendian ekintzak egiteaz gain, mendia herrira ekartzen du talde honek. Aurten, 14. aldiz, Mendiko Kultur-Kirol Jardunaldiak eskainiko ditu Artarraik, mendia kalera hurbilduz.

“Behin, Juan Vallejo mendizaleak esan zigun, ‘zuek bezalako mendi talde gutxi dago bizirik’, eta hori kontutan hartuta, gure apaltasunean, mendiaren inguruko jardunaldi polita eskaintzen saiatzen gara”. David Elejalderen hitzak dira horiek, Artarra Mendi Taldeko kidearenak. laz bere gain hartu zuen jardunaldiak antolatzeke ardura, baina aurten taldeko beste kide batzuekin elkarbanatu du lana. “Bakoitzak arlo bat landu du eta ondo moldatu gara horrela”.

Irailaren 30ean emango zaie hasiera XIV. Mendiko Kultur-Kirol Jardunaldiei eta urriaren 20an amaituko dira. “Lehen astebetean egiten genuen dena, nahiko konprimatuta, eta jendea ezin zen ekintza guztietara joan. Orain aukera gehiago dago”, dio Elejaldek. Mendia herriari zabaltzea da jardunaldien helburua, ez baitute honekin “dirua irabazteko asmorik”.

Mendian hasiko dira mendi jardunaldiak. Non bestela? Castro Valnerara irteera egingo da irailaren 30ean. 7:30-8:00ak inguruan irteno dira, eta Kantabria eta Burgos aldean dagoen 1.718 metroko mendira joko dute. Baina ez da jardunaldietan zehar

egingo den irteera bakarra. Izan ere, urriaren 12tik 15era Jaca (Aragoi) ingurura txangoa antolatuta da, nahiz eta oraindik ez duten erabaki zein mendi igoko duten. Mendiko irteera hauetara joan nahi izanez gero, Artarrairen bulegoan eman daiteke izena ostegunetan 19:30etatik 20:30etara; eta taldearekin kontaktuan jarri edo bestelako informazioa jasotzeko, artarraie@euskalnet.net da helbide elektronikoa.

## Ikus-entzunezkoak eta hitzaldiak

Lur Basterretxeak ‘Karibu Tanzania’ ikus-entzunezkoa aurkeztuko du urriaren 3an 19:00etan Lobianon. “Tanzaniako bizitza ekarriko du gurera, ez bakarrik han igotako mendiak”. Bertan denbora egin zuen Elorrioko mendizaleak eta Tanzaniako jendearekin bizitakoa kontaktuko du, Kilimanjarora egin zuen igoeraz gain. “Hara igo zen han zegoelako, ez hemendik bertara apropos egindako espedizioa egin zuelako”, argitzen du Elejaldek.

Orain dela bi urte Artarraik Ermuko Zineklubarekin bat egin zuen Mendiko Kultur-Jardunaldietan eta, lotura horren ondorioz, aurten ere mendiarekin zerikusia duen pelikula bat

eskainiko da. ‘Meru’ izango da urriaren 5ean 20:30ean eskainiko den filma eta izen hori daukan mendian kokatzen da. Indiako iparraldean dago Meru, eta Jimmy Chin eta Elisabeth Chai Vasarhelyi zuzendariek mendi horren ‘tibueroi hegalarren’ iguera hartu dute filma egiteko ardatz moduan.

Zinearen ostean, urriaren 10ean meteorologiari buruzko hitzaldia eskainiko du Joseba Areitio 19:00etan Lobianon. “Menditik at dagoen, baina mendiarekin zerikusia duen gai bat ekarri nahi izan dugu, mendizaleak prestatzeko”, dio Elejaldek. “Mendian sartuta zaudenean eguraldi aldaketak izan daitezke eta ondo dago meteorologiaren inguruan ezagutzak

edukitzea”, zehazten du. Jardunaldiei amaiera emateko, mendizaleen artean erreferentea den Alberto Iñurrategi izango da. 8.000 metrotik gorako hamalau mendiak igo dituen munduko 10. mendizalea izan da Iñurrategi, baina horrez gain, mendian aritzeko duen filosofia da bere irudia are gehiago handitzen duena. Aretxabaletaoak ‘Porrotaren analisis’ izenburua duen hitzaldia eskainiko du urriaren 20an 19:00etan Lobianon. “Espero dugu jendea etortzea, oso hitzaldi interesgarria izango delako, are gehiago Iñurrategiren ahotan”, adierazten du Elejaldek. Inolaz ere, ibilbide gozoa da Artarraik aste hauetan eskaintzen duena.

Ekhi Velar

## Umorez hartzea

**B**aztertu dut oporretatik bueltako bajoi animikoaren gaia, Lisboa zabal eta eguzkitsutik Mordor gris euritsu honetara zuloratzearena. Ongi etorria.

Animoari eutsiz, pentsatu dut umorearen mugen gaiari heletzea. Badago Netflix-en AEBetako komiko bat bereziki ofentsiboa. Bere estiloa umore beltza da eta gai delikatueta muturra sartu zalea da, ez du baina huts egiten, trebea da eta barre algarak sortzen ditu. Anthony Jeselnik du izena eta emanaldiaren bukaeran umorearen mugez berba egiteko tartea hartzen du.

Twitterren tragedia handi baten ostean txistea botatzea da bere espezialitatea. Eta telebis-tako lanpostua kolokan ikusi

behar izan du eta heriotz-mehatxu ugari jaso umore lan horregatik. Ume hilak, pederastak, hiltzaileak... bere txisteen gaiak hauexek dira, barre egiten duzu, edo ez, eta berehala txarto sentitu: zuzena da hemen barre egitea? Gogorra da gero!

Eta hortxe umorearen mugen kontua. Umoregileak muga berak jartzen du, komiko bakoitzak bere estiloa markatzen du eta muga bakarra erantzukizuna da. Alegia, adierazpen askatasunaren muga bakarra esandakoaren gaineko ardura hartzea da. Entzulearen aldetik muga errez erabakitzen du norberak: gustatzen zait, ez zait gustatzen, erosten dut, ez dut erosten.

Garai batean, jarrera erlijioso bat bazegoen rockaren aurka.



Markos Gimeno

Adibidez, AC/DC taldea satanikotzat jotzen zen eta gazteriarren perbertsioaren errudun, eta zentsuratu behar omen zen. Gaur egun, gurean ere, jarrera zentsoreak ateratzen dira eta ez datoz lehenago elizatik bakarrik.

Zentsurarako joera errazena da. Baina, gainera, ez du funtzionatzen, ez epe laburrean ezta luzean ere. Funtzionatzen duena askatasuna da, eta norberak erabaki dezala ikusi ala ez ikusi, partekatu ala ez partekatu. Pellokeria badirudi ere, hau ez da eguneroko legea.

“ Gaur egun, gurean ere jarrera zentsoreak ateratzen dira eta ez datoz elizatik bakarrik ”



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN**  
**SALMENTA ETA KONPONKETA**

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**MALLABIA  
1969**

Valentin Gerenabarrena Longarteren meza-berri eguneko argazki honetan, abade berria bere arreba Rosarekin erretratatu zuen Eibarko Varela argazkilariak. Geriako San Adriango Parrokian eman zuen harek bere lehengo meza hori eta Trabaku Goikon gero osaba-izeba, lehengosu-lehengosina eta senide guztiekin ospatu, elkarrekin eta jaigiro ederrean bazkalduz.

**ERMUA  
1949**

“A” hizkitik hasita Aurori Arriaran, Pilar Astaburuaga, Isa Sotelo, Amaia Guridi eta Marina Zendoia. Balleta egiten zuten, beste neskatotxo mordo batekin, eta parte hartu zuten D. Teodoro Zuazuak abadetzan 25 urte betetzen zituela-eta egin ziren emanaldietan, dozenaka ezpata-dantzari eta abeslarirekin batera. Ekainaren 20 eta 21ean ospatu ziren eta, dantzarien atzeko jendetzari erreparatuta, une horretan Ermuak zituen 14.651 biztanleetatik, mordoxka eder bat kaleratu zen.

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Proba-Leku**

*Neapaindegia - Estetika*



Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**



**Irailaren 8an**  
Zorionak Aner zure  
13.urtebetetzean.  
Musu handi bat etxe-  
koen partez. Ia kafe-  
txo bat ordaintzen  
duzun!



**Urriaren 3an**  
Zorionak Aitzol!  
Musu asko zure fami-  
lia guztiaren partez.  
Asko maite zaitugu!



**Irailaren 22an**  
Zorionak Ariane!  
Ondo pasa zure egu-  
nean!



**Irailaren 25ean**  
Zorionak Ainere zure  
4. urtebetetzean  
familia guztiaren  
partez. Ondo pasa  
eta patxo handi bat!



**Urriaren 1ean**  
Zorionak Udane! Oso  
ondo pasa zure  
eguna. Musu handi  
bat etxeko denon  
partetik!



**Irailaren 19an**  
Zorionak Aitor eta Amaia!  
Atzo zelakoan eta 50 urte  
pasa dira!!  
Musu eta maitasun pila etxe-  
koen partez!!



**Irailaren 15ean**  
Zorionak Peru! Primeran  
pasa zure 11. urtebetetze-  
an. Patxo haundi bat etxe-  
ko guztion partez!



**Urriaren 3an**  
Zorionak Piedi zure  
urtebetetzean fami-  
liaren partez! Musu  
asko eta asko maite  
zaitugu!



**Urriaren 10ean**  
Zorionak Xabat!  
Patxo potolo-potolo  
bat eta besarkada  
haundi bat etxeko  
partez!



**Urriaren 6an**  
Zorionak Irama!  
Familia guztiaren  
partez, eta bereziki  
zure lehengusu  
Anerren partez. Asko  
maite zaitugu!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Azken eguna: **Urriaren 18a.**

**arral** arral97.com

Tel.: 943 17 60 75

**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

[arral@arral97.com](mailto:arral@arral97.com) - Pol. Ind. Goitondo Golkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**IZASKUN TXURRUKA**

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

[peluqueriaizaskun@gmail.com](mailto:peluqueriaizaskun@gmail.com)  
[peluqueriaizaskun.wordpress.com](http://peluqueriaizaskun.wordpress.com)

**TORREKUIA**

**Pintxo eta kazolatxoak**

Torrekuia kalea 2 - Ermua  
943 17 69 29

**ZINEA**

**2ra arte:**  
"La torre oscura"+  
"Dunckerke"

**7tik 9ra:**  
Zehaztu gabeko filme-  
ak

**14etik 16ra:**  
Zehaztu gabeko filme-  
ak

**21tik 23ra:**  
Zehaztu gabeko filme-  
ak

**28tik 30era:**  
Zehaztu gabeko filme-  
ak  
Ermua Antzokian.  
Hainbat ordutegi.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 1:**  
"Richard zikoina"

**Hilak 8:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 15:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 22:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 29:**  
Zehaztu gabeko filmea  
Ermua Antzokian.  
20:30etan.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 5:**  
"Meru: odisea en el  
Himalaya"

**Hilak 12:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 19:**  
Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 26:**  
"Fonko"  
Antzokian. 20:30ean.

**MUSIKA**

**Hilak 20:**  
Zarzuela: "Si las mujeres  
mandasen..." Masa  
Coral del Ensancheren  
eskutik. 22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10€

**Hilak 21:**  
Blues kontzertua: Boo  
Boo Davis. 20:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 8€

**ANTZERKIA**

**Hilak 6:**  
Talk show musikatua:  
"Los visitantes", Ana  
Arias, Carmen Paris, Jon  
Maia, Patxi Pérez,  
Raketa Brokovich eta  
Arrate Etxebarriaren  
eskutik. 22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 12 €

**Hilak 13:**  
"Los amantes del Casco  
Viejo", Mikel Losada eta  
Olatz Ganboarekin.  
22:15ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 10€

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilaren 6, 20 eta 27an:**  
Jolasak: Barixakuetan.  
17:30ean. Orbe kardina-  
laren plazan.

**Hilak 7:**  
Ipuin-kontaketa ingelesez.  
17:30ean. Lobiano Kultur  
Gunean.

**Hilak 21:**  
Musikala: "Gaeko entzi-  
klopedia koskorra" 3 prin-  
ceses barbudesen eskutik.  
17:00etan. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 4€

**Hilak 28:**  
Ipuin-kontaketa.  
17:30ean. Lobiano Kultur  
Gunean.

**Hilak 25:**  
Emanaldia: "Yallah!  
Underground".  
19:30ean. Ermua  
Antzokian

**Hilaren 8ra arte:**  
Gaztela-Leongo Kultur  
Zentruaren astea: hainbat  
ekitaldi. Gaztela-Leongo  
zentruan eta Orbe kardi-  
nalaren plazan.

**Hilaren 3tik 20ra:**  
Mendi kultur eta kirok  
jarunaldiak: hitzaldiak,  
diaporamak, zine ema-  
naldiak eta mendi irtee-  
rak. Ermua Antzokian eta  
Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 21:**  
Eskailarapeko Ateneoren  
urteurrenaren jaia: hain-  
bat ekitaldi. Orbe kardi-  
nalaren plazan.

**Hilaren 23tik 29ra:**  
Andaluziako Kultur  
Zentruaren astea: hainbat  
ekitaldi. Andaluziako zen-  
truan eta San Pelaio pla-  
zan.

**Hilaren 26tik 29ra:**  
Mikologiari buruzko jar-  
dunaldiak: hainbat ekital-  
di. Lobiano Kultur  
Gunean eta Orbe kardi-  
nalaren plazan.

Patxi López

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 16tik 29ra:**  
Mikologiari buruzko  
argazkiak: 18etatik  
20etara.

**BESTELAKOAK**

**Hilak 24:**  
Emanaldia: "My Buddha  
is punk". 19:30ean.  
Ermua Antzokian.



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



**ALBOKA**



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 Hertz Klinika - Clínica Dental  
**Leire Irazu Garitaonandia**  
 • Ortodontzia • Aho zirujia  
 • Periodontzia • Implanteak  
 • Odontologia orokorra  
 Zeharkale 8, beheka 943 17 71 34  
 www.irale.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**  
 Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13, beheka  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**san pelayo**  
 clínica dental hertz klinika  
 Implanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hertz -zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS  
 San Pelayo 5, 1. Olatz García Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA


**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**  
 - Aho eta inplante kirurgia  
 - Hortzetako protesiak  
 - Hertz estetika  
 - Ortodontzia  
 - Odontopediatria  
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea  
 Hertz klinika berritu eta handitu dugu  
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**  
 Cristina García Pérez  
 Belar-denda eta dietetika  
 • Elikagai biologikoak  
 • Terapia naturalak  
 • Naturopatarekin kontsultak  
 • Masajeak  
 • Dietistarekin kontsultak  
 • Kosmetika biologikoa  
 Zeharkale 12 beheka esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

# aek

euskara praktikoa



## % 100 AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK

**AZKEN  
EGUNAK**

### Ermuko Kaltxango AEK

Euskalduntzea

4. maila (C2) aurrez aurre

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza

Mintza-taldeak

Berbalagun

Txandaka aritzeko aukera

%100era arteko diru-laguntzak

Bizkaia etorbidea 13, behea. Ermua

943 17 19 40 · 607 623 961 · [kaltxango@aec.eus](mailto:kaltxango@aec.eus)